

Enpleguaren aldeko Itun Sozialaren urtea, emaitza nagusiak eta 2025erako lan-ildoak.

Alfonso Gurpegui. *Enplegu eta Gizarteratzeko Sailburuorde*

1. Enpleguaren aldeko Itun Sozialari atxikitako erakundeen jardueren azterketa

1.1. Ordezkaritza zabala eta heterogeneoa erakunde sinatzaileen artean

113

erakunde atxiki

- 3** Elkarrizketa Sozialeko Mahaia
- 48** Eusko Jaurlaritza (6 sailburuordetza), 3 Aldundi, 44 Udal
- 12** Garapen-agentzia
- 8** Gizarte- eta enpresa-eragileak
- 14** Enpresa-klusterrak
- 3** Merkataritza Ganbera
- 10** Unibertsitate/ Prestakuntza-zentroen elkarteak
- 16** Hirugarren sektorea eta beste batzuk

1.2. Konpromisoen aurrerapen-mailaren jarraipena ¹

Atxikitako erakundeek 10 konpromisoari erantzuteko garatutako jarduera, ekimen eta programen askotarikoak

383

jarduera egin dira
2024an

**Erakunde bakoitzak, batez beste,
6 ekintza egin ditu** Ituneko 10 konpromisoak
garatzeko

387

ekintza aurreikusi dira

**2025ean erakundeen konpromisoari eutsi eta
zabaltu egingo da**

¹ **Lagin adierazgarria:** 74 erakundek parte hartu dute kontsultan (guztizkoaren %65)

1.3. Begirada globala: konpromisoaren arabera jardueren garapena

	Compromisos	%
C3	Jarduera-tasa handitzen laguntzea.	%83
C1	Jarduera ekonomiko jasangarria, arduratsua eta lehiakorra, pribatua eta publikoa.	%78
C5	kualifikazioa eta birkualifikazioa etengabe sustatzea.	%77
C4	Ezagutza- eta berrikuntza-inguruneak sortzea.	%72
C6	Pertsona guztientzako lan-merkatua sortzen lagunduko duten politikak sustatzea.	%66
C9	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lan-eremuan.	%63
C10	Enplegu Legearen erabateko garapena.	%53
C7	Pertsonak erakartzea, integratzea eta prestatzea.	%50
C8	Belaunaldien arteko aliantza.	%41
C2	Elkarrikeria sozialarekin konprometituta dagoen eredua txertatzea.	%38

Guztira 2024: 383 ekintza

%83

3. KONPROMISOA

Jarduera-tasa handitzen laguntzea, enplegua inklusiorako eta bizi-kalitaterako tresna bilakatuz.

1. Enplegagarritasuna eta lanerako sarbidea.
2. Prestakuntza eta garapen profesionala.
3. Enpleguan sartzea eta aniztasuna.

%78

1. KONPROMISOA

Lan duina eta inklusiboa sortuko eta mantenduko duen jarduera ekonomiko jasangarria, arduratsua eta lehiakorra sustatzea.

1. Enplegu iraunkorra eta belaunaldi-erreleboa.
2. Berrikuntza eta ekintzailetza arduratsua.
3. Eraldaketarako prestakuntza eta lidergoa.

%77

5. KONPROMISOA

Langileen prestakuntza bultzatzea, produkzio sektore ugarien beharrei arreta emateko gai den eredu eraginkor eta eragingarriaren bitartez.

1. Enplegurako prestakuntza eta birkualifikazioa.
2. Gaitasunen integrazioa eta lan-orientazioa.
3. Ekintzailetza eta autoenplegua.

%72

4. KONPROMISOA

Ezagutza- eta berrikuntza-inguruneak sortzea, talentua mantentzen eta erakartzen lagunduko duten dinamika publiko eta pribatuen ondorioz.

1. Prestakuntza, talentua eta laneratzea.
2. Berrikuntza, iraunkortasuna eta eraldaketa digitala.
3. Ekintzailetza eta lankidetzak publiko-pribatua.

%66

6. KONPROMISOA

Enplegura sarbidea izateko garaian zailtasun handienak dituzten pertsonen beharrei erantzungo dien lan-merkatua bultzatzea.

1. Kolektibo kalteberen laneratzea eta babesia.
2. Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko lotura.
3. Ekintzailatza bultzatzea.

%63

9. KONPROMISOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lan-merkatuan, enplegua eskuratzean eta mantentzean, eta kontziliazio erantzunkidea.

1. Berdintasunezko sarbidea eta ekitatea enpleguan.
2. Emakumeen lidergoa eta ordezkaritza.
3. Genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza.

%**53**

10. KONPROMISOA

Enplegu Legea garatzea erakunde eta gizarte-eragile guztien artean, lan duinaren ikuspegia politika publikoetan txertatuz.

1. Enplegu-sistema gobernatzea eta indartzea.
2. Enplegarritasuna eta lurralde-garapena bultzatzea.
3. Ekintzailatza eta gizarte-ekonomia.

%**50**

7. KONPROMISOA

Beste lurralde batzuetatik datozen pertsonak erakartzea, integratzea eta prestatzea belaunaldi mailako ordezkapenari erantzuteko.

1. Migratzaileak laneratzea.
2. Nazioarteko talentua erakartzea eta mugitzea.
3. Ekintzailatza eta lankidetzaren publiko-pribatua.

%41

8. KONPROMISOA

Belaunaldien arteko eta Politika publikoen arteko aliantza garatzea, zahartzearen kudeaketa sozialerako eta zainketen ekonomiarako.

1. Enpleguaren sustapena eta profesionalizazioa zainketen sektorean.
2. Zahartze aktiboa eta parte-hartze soziala.
3. Silver Economy bultzatzea eta sektoreari laguntzea.

%38

2. KONPROMISOA

Lan-harremanen testuinguruan elkarrizketa sozialarekin konprometituta dagoen eredua txertatzea.

1. Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna.
2. Elkarrizketa soziala eta lan-harremanak.
3. Enplegu inklusiboa eta iraunkorra.

2. Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren erronkak 2025

LANBIDE HOBETZEN proiektuaren garapenean aurrera egitea;

- Zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzea.
- Pertsoneri eta enpresei arreta emateko eredu berriak, haien premiei erantzuteko.
- Lan-bizitzaren edozein unetan Lanbideren zerbitzuak behar dituzten pertsona guztiei enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboaren erabilera bermatzea, Enpleguaren Legean jasotako baldintzetan.

ENPLEGUARI BURUZKO LEGEAREN hedapena

- Euskal Enplegu Sarea eta tresna komunak sortzea, Legeak sare honetako osagai bakoitzerako ezartzen dituen eskumenak garatzeko.
- Pertsonen eta enpresen beharrei erantzungo dien zerbitzu-zorroa garatzea.
- Tokiko enplegu eta garapen planak antolatzea, legeak sustatzen duen enpleguaren tokiko ikuspegiaren adierazpen gisa.
- Euskadin lanerako prestakuntza-eredu berri batean aurrera egitea, gainerako erakunde eta eragileekin lankidetzan, langileen eta produkzio-sarearen kualifikazio-beharrei erantzun ahal izateko.

Horretarako, arau-garapen garrantzitsua egin behar da, eta 2025. Urte honetan ekingo zaio bideari

- Dekretu-proiektua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatu beharreko enplegurako pizgarriak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzekoa.
- Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta enplegu-agentzien arteko akordio irekiak arautzen dituena, bitartekaritza- eta enplegu-zerbitzua emateko.
- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu-proiektua.
(Enpleguari buruzko 15/2023 Legea garatzeko)
- Enplegu Foroa arautzeko dekretu-proiektua.
(Enpleguari buruzko 15/2023 Legea garatzeko)
- Enplegu-zerbitzuen zorroa arautzen duen dekretu-proiektua.
(Enpleguari buruzko 15/2023 legea garatzeko)
- Dekretu-proiektua, Euskal Enplegu Sarearen tresna komunak egin, mantendu eta kontserbatzeari buruzkoa.
(Enpleguari buruzko 15/2023 Legea garatuz.)